

---

## Ekimen kontserbazionistek biodibertsitatea hobetzen dutela frogatu dute

Nazioarteko 186 ikerketaren meta-azterketa baten bidez, kontserbazionistek eragin onuragarria dutela biodibertsitatean frogatu dute.

Izan ere, munduan esku-hartze kontserbazionista ugari egiten diren arren, agerikoa da ez direla nahikoak kontserbazioari buruzko nazioarteko helburuak lortzeko; adibidez, Biodibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenean zehaztutakoak. Dena dela, orain arte ez zegoen azterketarik ikusteko zer gertatuko litzatekeen ekintza kontserbazionistak egingo ez balira. Horrenbestez, artikuluen egileek askotariko esku-hartzeak aztertu dituzte, mundu osokoak, eta frogatu dute haietatik bi herenek biodibertsitatearen egoera hobetu dutela, edo, gutxienez, okertzea moteldu dutela.



Guyanako oihanaren galera € 35 gutxitzea lortu dute ekimen baten bidez. Meta-azterketan kontuan hartu duten ekimenetako bat izan da. ARG.: Andrew Sinder, Re:Wild.


Horrez gain, eskala handian eragin onuragarria dutuzten ekimenak identifikatu dituzte: espezie inbaditzaileen kontrola, habitat-galerari aurre egitea eta bere onera ekartzea, eremuak babestea eta kudeaketa jasagarria egitea.

Nolanahi ere, egileek ohartarazi dute ezinbestekoa dela ahalegin handiagoa egitea kontserbazioan, biodibertsitate-krisiari erantzuteko; adibidez, ekintzak hedatuz, eta finantziazioa areagotuz. ●

---

## Diamanteak giroko presioan sortu dituzte

Diamanteak giroko presioan sortzea lortu dute, metal likidozko aleazio batekin eta huts-sistema baten bidez. Horrek hautsi egin du orain arteko paradigma, diamanteak sortzeko muturreko presio eta tenperaturak ezinbesteko zirela jotzen baitzen. [Nature aldizkarian eman dute lorpenaren berri.](#)



Hainbat morfologiatako diamanteak, hazkuntza-baldintza desberdinetan sortuak. ARG.: Institute for Basic Science.

Eskuarki, diamanteak 5-6 gigapascalako presioan (1 GPa 10.000 atm inguru da) eta 1.300 eta 1.600 °C bitarteko tenperaturatan sortu ohi dira. Orain, ordea, lortu dute diamanteak giroko presioan (1 atm) eta 1.025 °C-an sortzea, galioz, burdinaz, nikelaz eta silizioz osatutako metal likidozko aleazio bat erabiliz. Ikertzaileek diseinatutako horma hotzeko huts-sistema baten bidez lortu dute, eta normalean diamanteak sortzeko erabili ohi diren hazi-partikulak erabili gabe. Ikertzaileek ikusi zuten ezen, kondizio horietan metal likidozko aleazio hori metanoaren eta hidrogenoaren eraginpean jartzean, diamanteak sortzen direla aleazioaren gainazalean.

Ikertzaileek azaldu dutenez, aurkikuntza horrek aukera ugari eman ditzake diamanteak sortzeko metodo berriak garatzeko, baita oinarriko beste ikerketa askotarako ere. ●